

Zientzialariak

K

risi ekonomikoak edo tsunamiak Japonian eragindako ezbehar nuklearrak haien presentzia areagotu dute. Komunikabideek ohikoa dute haien azalpenak eta gomen-dioak tartekatzea. Zientzialariak dira, adituak, herritar arrunton ikuspegian konpre-nitzeko zailak diren gauzez asko dakien jendea. Haien jakinduriaren konplexuak erraz eramaten gaitu onartzera haiei entzun eta haien iritziz eta aholkuei men egin behar diegula.

Han-hemenka eta nonahi zientzialarien inguruko aipuak entzunda, Iruñeko gaue-tan “*La lotera*” ezizenaz ezaguna zen emakumea etorri zait gogora. Piura bitxiko emakume hark gauak loteria tabernaz taberna saltzen ematen zituen, eta egunak, Iruñeko Udaletxera berriz eta berriz jotzen, “zientzialariekin” hitz egin behar zuela eta bertan hitzordu bat egingo zioten esperan-tzan, batzuetan Jainkoaren partetik eta bes-tetan estralurtarren izenean “zientzialariak” gizateriarentzat funtsezkoa omen zen mezua helarazi behar ziela argudiatuz. Zientzialariak pieza bereko aniztasun santu bat edo osatzen zutela iritzita, ziurrenik.

Emakume hark uste zuenaren kontra, zientzialariak, ikerlariak eta adituak ugariak eta askotarikoak dira, eta haien irizpide eta sinismenak ere, anitzak eta ezberdinak. Zorionez, esango nuke nik (zorionez, bes-telako zientzialariak –*Union of Concerned Scientists* kasu– eta ekonomialariak –adibi-dez, *Les économistes atterrés*– existitzen direla-ko), nahiz eta, zoritxarrez, aditu batzuek beste zenbaitek baino itzal handiagoa duten, eta haien iritziek oihartzun handia-go. Ishibashi Katsuhiko sismologoari, esa-terako, inork gutxik egin zion kasu 2007an *Herald Tribune* egunkarian “lurrikarek aurre egiteko zentral nuklearren ziurgarritasuna murrizteko neurri erradikalak hartu ezean Japoniak laster benetako katastrofe nuklear bat pairatu ahalko zuela” esan zuenean.

Beste edozein asmakuntza humano bezala zientzia ere pertsonen eta erakun-deen ideologiatik eta interesetatik aske ez dagoenez, kezkatu nintzen Espainiako Gobernuak presidenteari energia nuklea-rrari buruzko eztabaida “zientifikoa” egin



behar zela, eta ez “ideologikoa”, esaten entzun nionean: zientzia ideologiaren aurretik ezarri eta, aferen gaineko ezagu-mendu konplexua estakuru hartuta, eraba-kiak adituek hartu behar dituztela esaten digutenean ohikoa da ezkutuko interesak izatea jokoan, eta, edozein kasutan, gogo-ratu beharko genuke, Frantzia aldean “laz-turik” dabilzan ekonomialariak dioten bezala, herritarrok hartu beharko genituz-keela, eta ez adituek, guri dagozkigun era-bakiak, modu kolektibo eta demokratikoan.

Zientziek eta teknikak huts egiten dute-nerako, bestelako makuluak behar dira, eta naturari lotuago bizitzeak, literaturak edota historiak zertxobait laguntzen ahal digute. Josu Jimenez Maiak 2005ean *Berrian* argita-ratu eta geroago Patxi Zubizarretak ere jasotako ipuin ekialdetarrean, *Ai Kajiya* neskatilaren aitona sua eman zien zaintzen



Gogoratu beharko genuke, Frantzia aldean ‘lazturik’ dabilzan ekonomialariak dioten bezala, herritarrok hartu beharko genituzkeela, eta ez adituek, guri dagozkigun erabakiak, modu kolektibo eta demokratikoan



zituen herriko laboreei, eta horrela, sutetik ihes eginaraziz, itsas ondoan bizi ziren herritarrok mendirantz bideratu zituen. Auzoek, haserre, aitona-biloba inguratu zituzten, xaharraren jokamolde haren zergatiaz galdezka. Erantzuna olatu erraldoi batek ekarri zien berehala, lur erre berriak estali zituen. Ipuina XIX. mendekoa da, eta jendea tsunamien arriskuei buruz ohar-taraztea omen du xede. Mende hartan baka-rrik, bi tsunami izan ziren Japonian, eta horietako batek, 1896koak, 25.000 lagun hil zituen. ■